

SERANTES KULTUR ARETOKO ARETOAK ETA KRESALA ERABILTZEKO BAIMENEN ARAUDIA

Serantes Kultur Aretoa erakunde autonomoak, besteak beste, Serantes Kultur Aretoa higiezina (Máximo García Garrido kalea 13) eta Kresala Aretoa (José Miguel de Barandiaran kalea 12) ditu, Santurtziko udalak atxikita.

Aipatutako higiezin horiek arte eszenikoekin zerikusia duten ekitaldi publikoak, zinema proiektzioak, batzarrak eta antzekoak egiteko daude prestatuta.

Ikuskizun profesionalen programaziorako prestatutako ekipamenduak direnez, sarritan erabiltzen dituzte hainbat erakunde publiko eta pribatuk, batez ere 2002. urtean Kresala Aretoa ireki zenetik.

Administrazio zein gizarte erakundeek, enpresek eta pertsona fisikoek espazio horiek erabiltzeko araudia 2001eko irailaren 28ko erabakiaren bitartez arautu zuen Serantes Kultur Aretoa erakundeko Zuzendaritza Batzak.

Urte hauetan metatu dugun esperientzia kontuan hartuta, Serantes Kultur Aretoko aretoak eta Kresala aretoa erabiltzeko gaur egungo prozedura berrikustea komeni da, gaur egungo prozeduran antzeman diren huts batzuk konpontzeko asmoz eta batez ere Kresala Aretoa erabiltzeari buruzko alderdi guztiei ekiteko; izan ere, gaur egungo araudia areto hori erabiltzen hasi aurrekoa da.

Araudi honek araututako espazioak:

Araudi hau honako espazio hauetan aplikatuko da: Serantes Kultur Aretoa: 1. aretoa (598 eserleku), 2. aretoa (194 eserleku) eta 3. aretoa (190 eserleku), eta Kresala Aretoa (99 eserleku).

Erabilera motak:

Arestian aipatutako espazioak honako erabilera araubidearen arabera erabili ahal izango dituzte onuradunek:

1.- Alokairua, Udal Ordenantzetan araututako prezio publiko ezberdinen arabera.

2.- Doako lagapena:

Onuradunak:

Edozein erakunde publiko zein pribatuk, elkartek, enpresak edo pertsona fisikok eskuratu ahal izango du arestian aipatutako espazioak Alokairu araubidean erabiltzeko aukera, Araudi honetan ezarritakoari jarraituz eskatzen badu.

Araudi honetan azaldutako espazio guztien Doako lagapena udal arloen onerako baino ez da egingo.

Elkarteen Udal Erregistroko zerrendan azaltzen den edozein elkartek eskatu ahal izango du Kresala aretoa dohainik erabiltzeko baimena.

Era berean, Serantes Kultur Aretoko aretoen doako lagapenak egin ahal izango dira, onuradunak irabazi-asmorik gabeko erakundeak badira eta Erakunde autonomoak programatu

ohi dituenen antzeko gizarte eta kultur izaerako jarduerak egin nahi badira, erakundearen eskaintza osatuz.

Eskabidea egin duen elkarte edo erakundeko burua, bere legezko ordezkaria edo eskabidea egin duen pertsona fisikoa bera izango da erantzulea erakunde autonomoaren aurrean, itundutako baimenetik eratorritako zereginak behar bezala beteko direla bermatzeko.

Prozedura orokorra:

Erabiltzeko eskabideak, eskabidearen helburu den ekitaldia burutu baino aste bi lehenago aurkeztu beharko dira, gutxienez. Erakunde Autonomoak horretarako emango duen eredu normalizatuaren bitartez edo eredu horretan adierazitako datu guztiak azalduko dituen agiriaren bitartez egingo dira eskabideak.

Erakunde autonomoaren bulego nagusietan aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak eskatzaileek edo, bestela, postaz, faxez edo posta elektronikoz bidali.

Erakunde Autonomoko burutzak, araudi honetan ezarritako irizpideak kontuan hartuta, erabilera baimendu edo ukatuko du, ebazpen arrazoituaren bitartez. Areto bat edo gehiago erabiltzeko baimena ematekotan, kasuan kasu lagapena baldintzatzen duten alderdi guztiak adieraziko dira jakinarazpenean eta, gutxienez, honakoak adierazi beharko dira:

- Lagapena baimentzeko egon den helburua
- Lagapenaren ordutegi edota egutegia
- Pertsona eta gauzen segurtasuna bermatzeko neurri zuzentzaileak, eskatzaileak egin nahi duen jardueratik eratorritako arriskuak kontuan hartuta.
- Prezio Publikoen Ordenantza aplikatuz eratorritako prezio publikoaren zenbatekoa, hala badagokio.
- Baimenetik eratorritako zereginak betetzeko erantzulearen identifikazio-datuak.

Erregistratutako elkarteek Kresala Aretoa erabiltzeko berariazko prozedura:

Elkarteen Udal Erregistroko zerrendan azaltzen diren erakundeek Kresala Aretoa erabiltzeko eskabidea aurkeztu ahal izango dute eta, hala badagokio, horretarako baimena eskuratu, eskabidea Erakunde Autonomoaren bulegoetan egiten duten unean bertan.

Horretarako, Lagapenerako Eredu Normalizatu egongo da, eta eskabidea erregistroan sartu eta berehala beteko du Erakunde Autonomoak.

Santurtziko Udalarentzako berariazko prozedura:

Udaleko administrazio arlo eta erakunde autonomo ezberdinek, era berean, araudi honetan araututako espazioak erabiltzeko aukera izango dute, aurretiaz arloetako edo erakunde autonomoetako arduradunek horretarako eskabidea sinatzen badute.

Eskabideetan eskatutako lagapenaren helburua, eskatzen den espazioa eta jarduera burutzeko aurreikusitako egun eta orduak adierazi beharko dira.

Eskatutako erabilera baimentzekotan, ofizio bidez jakinaraziko zaio eskatzaileari.

Araudi honetan araututako espazioen erabilera baimentzeko baldintza orokorrak:

Adierazitako espazio bat edo batzuen lagapenaren onuradun diren administrazio, erakunde, enpresa eta pertsona fisikoek uneoro errespetatu beharko dituzte erabilera

baimentzeko agiri bakoitzean islatutako alderdi guztiak. Era berean, espazio horien ardura duen erakunde autonomoko langileek agindutakoa bete beharko dute.

Inola ere ezin izango da espazio bakoitzerako adierazitako edukiera gainditu.

Erakunde autonomoak espazio bakoitzean dagoen material tekniko guztia ipiniko du lagapen-hartzailearen eskura, eta bere pentzurakoak izango dira material teknikoa handitzetik eratorritako gastuak, hala badagokie, lagapenaren helburu den jardueraren ondorioz.

Halaber, garatuko den ekitaldiaren izaera kontuan hartuta azpiegitura eszenikoren bat manipulatu, instalazioren bat egin edo makinaren bat erabili behar bada, gutxienez teknikari baten zerbitzuak erabili beharko dira nahitaez erakunde autonomoak horretarako kontratatutako enpresetako langileen artetik, eta eskatzailearen pentzurakoak izango dira esku-hartze horrek sortutako gastuak. Zuzenean ordainduko zaio esleitutako enpresari.

Lagapena alokairu araubidearen arabera egitekotan, teknikari baten laguntza egongo da dagokion prezio publikoaren barruan, bestelako kargurik gabe, lagapen-hartzailearen esku ipiniko duena lagatako espazioan erabilgarri dagoen materiala.

Era berean, Kresala Aretoa erregistratutako elkarteei lagatzean, teknikari baten laguntza ere emango da, bestelako kargurik gabe.

Lagapenak muga hauen barruan egingo dira egun bakoitzerako, dagozkien ordutegien barruan:

- Serantes Kultur Aretoko 1., 2. eta 3. aretoak, 08:00etatik 24:00etara bitartean.
- Kresala Aretoa, 08:00etatik 22:30era bitartean.

Serantes Kultur Aretoko 1., 2. eta 3. aretoen doako erabilera goizez burutuko da, eta 14:00etan izango du muga. Salbuespen moduan baino ezin izango da areto hauen doako erabilera baimendu arratsaldeaz, asteleheneetik ostiralera bitarteko lanegunetan. Larunbat eta igandeetako arratsaldeetan ez da inolako doako lagapenik egingo.

Alokairu araubidearen pean emandako lagapenentarako, ezinbestekoa izango da, jarduera egin aurretik, aplikatu behar den prezio publikotik eratorritako zenbatekoa ordaintzea.

Lagapen-hartzaileek programatutako jarduerak bertan behera uztekotan, ez dira ordaindutako prezio publikoak itzuliko.

Lagapen-hartzaileek lagatako espazioetan egindako jardueren edukia antolatzaileen erantzukizuna izango da bakar-bakarrik. Gainera, lagatako instalazioen erabilera egokia egiteaz eta garatutako jardueraren ondorioz sor litezkeen kalteak ordainduko dituztela adierazi beharko dute, erakunde autonomoaren aurrean.

Beren-beregi bestelakorik adierazi ezean, eskabidea egin duen elkarte edo erakundeko burua, bere legezko ordezkaria edo eskabidea egin duen pertsona fisikoa, kasuan kasu, izango dira erantzuleak erakunde autonomoaren aurrean, erabilera baimenetik eratorritako zereginak behar bezala beteko direla bermatzeko.

Lehentasun irizpideak:

Serantes Kultur Aretoa Erakunde Autonomoaren programazioak lehentasuna izango du araudi honetan adierazitako espazioen beste edozein erabileraren aurretik.

Erabilera eskabideak erakunde autonomoaren erregistro nagusian sartu diren ordenari zorrotz jarraituz aztertuko dira.

Aldi bererako erabilera eskabideak egotekotan, honako lehentasun ordenari jarraituko zaio:

- 1.- Prezio publikoa ordaintzea ekartzen dutenak.
- 2.- Santurtziko Udalaren erakunde autonomoek eta udal arloek egindakoak.
- 3.- Gizarte eta kultur jarduerak garatzeko helburua dutenak.
- 4.- Udalerriko erakundeek egindakoak.